

AURKEZPENA

kaixo, Andoni eta Nekane gara.

15 eta 14 urte ditugu, hurrenez hurren. Internet eta gizarte-sareei buruzko zenbait gauza kontatu nahi dizkizuegu, interesgarriak izango zaizkizuenak, zalantzarik gabe.

Internet da gure teknologia gustukoena, badakizu zergatik? Gauza dibertigarriak egin ditzakegulako: txateatu, jolastu, musika entzun, filmak jaitsi, argazkiak eta bideoak igo eta partekatu. Halaber, gure hiritik urrun bizi diren lagun eta senitatekoekin komunika gaitzeko. Informazio asko aurki dezakegu laster batean, eta oso eroso da etxetik atera gabe lan bat egin, erosketak egin, jolasean ibili, gure lagunekin hitz egin eta gure gauzen inguruan solastatzeko. Gainera, inork ez gaitu ikusi edo ezagutzen, guk hautatzen ditugun haiek soilik.

Ba al dakizu hamar nerabetik seik gizarte-sareetan profila dugula eta TUENTI dela gure sare kuttuna?

Orain 14 urte ditudanez, profila egin dut. Eta zuk Andoni, zein gizarte-sare erabiltzen duzu?

Facebook, Habbo, Tuenti eta Youtube. Zertarako erabiltzen dituzu?

Niri jolastea, nire lagunak igotzen dutena ikustea eta sareratzeko bideoak editatzea gustatzen zait.

Badakizu? Joan den egunean gizarte-sareen arriskuei buruzko hitzaldia eman zuten institutuak eta semaforo bat erakutsi ziguten:

Nire lagunekin partekatzen ditudan momentuen argazkiak igotzen ditut. Gustuko ditudan bideoak partekatzen ditut, eta gehien gustatzen zaidana kuxkuxean ibili eta argazkiak etiketatzea da.

ARGI BERDEA: ERABILERA EGOKIA

- Norberaren datuak, pribatutasuna, intimitatea eta norberaren irudia nahiz sorkuntzak babestea (hala gureak nola besteenak).
- Pentsatzen duguna askatasunez esatea, baina gainerakoekiko begirunez.
- Lagunak, ezagunak eta ezezagunak bereizten jakitea.

ARGI GORRIA: ARRISKUA

- **Sare bidezko eskola-jazarpena (Ciberbullying)**, nerabe bat edo gehiagok eragindakoa. Esate baterako, irainak, mehatxuak, adierazpenak, gaizki sentiarazten gaituzten argazki edo bideoak eta laidoak.
- **Gehiegizko erabilera/mendekotasuna**. Gizarte-sareetan denbora gehiegi ematen badugu gure lagun errealekin

egon eta gauzak egiteaz ahazten gara eta beste jarduera batzuk (ikasketak, zalefasunak, atsedena, familiarekin egotea) alde batera uzten ditugu. Horrela, osasun-arazo larri bat izan dezakegu eta laguntza beharko dugu.

• **Sare bidezko sexu-jazarpena (Grooming)**, pertsona heldu batek eragindakoa. Badira nerabe direla sinestarazten ditugun pertsona helduak. Modu horretan, nerabeekin hitz egin, adiskidetu eta, azkenik, xantaia egiten dute, saretik at elkar ikustea bultzatzeko.

• **Identitate-ordezpena**. Arriskutsua da datu pertsonalak ematea, adibidez pasahitzak; izan ere, gerta liteke norbaitek pasahitz hori ebatsi eta hura baliatuz gure ordez ibiltzea. Hori delitua da.

Halaber, profil faltsua egitea identitate-ordezpena da.

• **Birusa**. Zenbait programa eta artxibok ar eta troiarrez kutsatuta egon daitezke, eta ordenagailua matxura diezazukete. Hori dela eta, ezinbestekoa da birusen aurkako programa bat izatea, eguneratua. Modu horretan, ordenagailua babestuko dugu.

ARGI HORIA: KONTUZ

- **Pertsona ezezagunak**.
- **Gizarte-sareak gehiegi erabiltzea**.
- **Programak edota artxiboak jaistea**.
- **Guri buruz edo beste batzuei buruz ematen dugun eta jasotzen dugun informazioa**, faltsua izan daitekeena edo, gure adina aintzat hartuta, desagokia izan daitekeena (pornografia, mirarizko dietak, adierazpen arrazistak, sexistak, bortitzak, etab.).
- **Igo eta editatzen ditugun argazki eta bideoak**.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, GARRANTZITSUENA JARRAIBIDE HAUEK BETETZEA DA:

1. **Gizarte-sareen Pribatutasun Politika eta Erabilera Baldintzak irakurri eta pribatutasun hori konfiguratzerakoan zure profilerako sarbidea zure hautatutako pertsonen soilik izan dezatela ziurtatzea.**
2. **Gure benetako izenaren ordez ezizen edo nick-ak (identitate birtualak) erabiltzea.**
3. **Erregistratzerakoan soilik ezinbesteko eta derrigorrezko datuak ematea, hainbat datu pertsonal eman gabe (esate baterako, gure helbide eta telefonoa, edota gure lagun eta familiari buruzko informazioa).**
4. **8 karaktereko pasahitzak erabiltzea, hizki eta zenbakiak nahastuz. Pasahitz hori asmatzen zaila izan dadin. Gure pasahitza soilik gurasoei jakinaraztea.**
5. **Sarean zerbait igo edo idatzi aurretik ongi pentsatu. Ez igo txantxa, laidoa edo mehatxua eragin dezaketelako argazki edo bideoak (ez zureak eta ez beste inorenak ere). Igo behar dituzun argazki edo bideoetan beste pertsona batzuekin gertzen bazara, haien baimena behar duzu igotzeko.**

Aipatu ditugun arrisku-egoeraren batean egonez gero:

- **Hitz egin gurasoekin edo konfiantzazko pertsona heldu batekin, egoera balioets dezaten.**
- **Gogoan izan zure lagunak lagun zaitzaketa laidoa egoera batean. Esate baterako, gertatzen zaizun.**
- **Blokeatu kaltea eragin dizun pertsonaren sarbidea.**
- **Jarri harremanetan gizarte-sarearekin egoera salatzeko.**


Hitzaldian, era berean, teknologia berriei (bideo-jokoak, Internet, telefono eramangarriak, etab.) buruz pentsatzen duguna adierazteko balia dezakegun blog bat aipatu ziguten:

www.onlinegazteak.net

ERABIL DITZAGUN GIZARTE-SAREAK ARDURAZ

GIZARTE-SAREAK

“Nerabeentzako erabilera onerako gida”



945 140 468
945 234 990
onlinegazteak@gmail.com
www.onlinezurekin.org

Antolatzailea:

ASOCIACIÓN ALAVESA DE JUGADORES EN REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Laguntzailea:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala